



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/09/13

300 kirolari eta 500 boluntario baino gehiagok hartuko dabe parte Bocineros-Deiadar Xtreme ultra trailaren hiru modalidadeetan

Bocineros-Deiadar Xtreme ultra traila hemen dago. Estadu osoko hogeitabi probintzia ingurutik eta Frantziatik etorritako 300 kirolari baino gehiagok hartuko dabe parte irailaren 14an, 15ean eta 16n Bocineros-Deiadar Xtreme ultra trailak proponiduten dituan hiru modalidadeetan (200K, 105K eta 45K). Gernikako Batzarretxeko Beirategiaren Aretoan gaur goizean egin dan prentsa aurrekoan kirol ekitaldiaren dimentsinoa erakusten daben hainbat zifra jakinarazo dira: 12.500 baliza, 18 anoa puntu eta Bizitza Base bi, 500 boluntario eta 6 tona edari eta janari. Prentsa aurrekoan Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak Fernando Pérez lasterketaren zuzendari teknikoak eta María Uribe Gernikako Alkateordeak hartu dabe parte.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak, erakunde horren ordezkari gorena izanda, “ekimen eder horri lagundu ahal izateak eragiten deusan poza” adierazo dau. Bere berbetan, “naturea tradizinoagaz, musturreko esfortzua legenda mitikoagaz” bateratzen dituan mendiko lasterketea. “Gure ilusinoa, urte birik behin, lasterketa hau kirol egutegiko proba klasiko bilakatzea da”, esan dau.

Lehenengo modalidadean, bihar, goizeko 10:00etan Gernikako Pasealekutik abiauko diran lasterkariek oso une hunkigarria biziko dabe irten eta denpora gitxira Gernikako Arbolaren eta Arbola Zaharraren artetik igarotean. Mila urte baino gehiago dituan azken horren enborra fosilizauta dago Batzarretxeko lorategian. Hortik aurrera 200 kilometro izango ditue, gehienez be 56 orduetan egiteko, eta ibilpide horretan Bizkaiko parte handia zeharkatuko dabe, 5 Deiadar mendiak (eta Bizkaiko beste hogeitabi tontor inguru) igoz eta Bizkaiko Batzar Nagusietako beste egoitza bietatik igaroz: Abellanedatik eta Gerediatatik. Batzuk garaipena lortzeko burukatuko dira probaren kirol ikuspegitik; beste batzuk, kirola gaingitzen dauen erronka pertsonala osatzeko.

200 kilometro eta 22.000 metroko maila aldaketea daukan Bocineros-Deiadar Xtreme ultra trailaren gogortasuna dala eta, proba hori, erresistentzia fisiko eta mental handia daukien lasterkariei eta mendizaleei mugatuta dago. Helmugara helduko diran lehenengoek 30 ordu inguruko lasterketea bete eta gero egingo dabe, eta azkenengoek 56 orduko mugea izango dabe ibilpidea beteteko. Segurtasuna bermatzeko, dortsal kopurua 200era mugatuta egongo da.

Exijentzia horregaz jabetuta, antolatzaileek beste lasterketa laburrago bi be aurreikusi ditue, Bocineros-Deiadar Xtreme ultra trailaren partaideen aukerea zabaltzeko eta Deiadar Mendiak kirolaren ikuspegi horretatik ezagutzeko aukerea emoteko:

Deiadar Ultra: 105 kilometro eta 10.400 metroko maila aldaketa metatua daukan ultra traila da, urteerea eta helmugea Gernikan dituana. Busturialdeko, Lea Artibaiko eta Durangaldeko 19 udalerrri igaroko ditu, eta anoa puntuak izango ditu Bermeon, Busturian, Kortezubin, Ereñon edo Aulestin, besteak beste. Hamar mendi igoko ditu, horreen artean Sollube eta Oiz Deiadar Mendiak, eta Urdaibaiko Erreserbea eta aitatutako eskualde horreetako 5 mendizerra eta mendikate igaroko ditu.

Deiadar Maratoia: 45 kilometro eta 4.000 metroko maila aldaketa metatua daukan mendiko lasterketea da urteerea eta helmugea Gernikan dituana. Busturialdeko 10 udalerrri igaroko ditu, eta anoa puntuak izango ditu Bermeon, Busturian edo Foruan, besteak beste. Bost mendi igoko ditu, horreen artean Sollube Deiadar Mendia, eta Urdaibaiko Erreserbea eta aitatutako eskualde horretako 3 mendizerra eta mendikate igaroko ditu.

INGURUMENAREN ERRESPECTUA

Gure historia bultzatzeaz eta ezagutuarazoteaz gain, Bocineros-Deiadar Xtreme lasterketea, gure lurra naturaren eta paisajearen ikuspegietatik dituan balioak erakusteko be sortu da, kirolariak eta ikusleak hartu-emon estuan jarritz Bizkaiko natura, historia eta etnografia ondareagaz. Ildo horretan, lasterketak, alde batetik, igaroten dan bide balizauak bultzatuko ditu, GRak (Ibilpide luzeak), PRak (Ibilpide laburrak), eta Donejakue Bidea (ibilpidearen %75 baino gehiago), eta, beste alde batetik, mendiko bideak eta bidexkak berreskuratzea be bilatzen dau, hori guztia erakunde publikoakaz lankidetza estuan.

Aldi berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen Sailaren baimen guztiak dituan lasterketaren balio garrantzitsuenetako bat, ingurumenaren aurreko erabateko errespetua izango da, naturaren, paisajearen eta etnografiaaren ikuspegietatik dituan balio altuak dirala eta. Horrez gain, probaren antolatzaileek, probak igaroko dituan espazio naturalen erabilera iraunkorra eta arduratsua sustatuko dabe.

Konpromiso hori bermatu ahal izateko, lasterketaren araudian antolatzaileek hainbat neurri ezarri ditue. Horreen artean dagoz partaide kopurua mugatzea, anoa puntuetan edalontzirik ez erabiltea (lasterkari bakotzak berea eroango dau, antolakuntzak emondakoa), lasterkari bakotzak eroango dituan bildukin guztiak dortsalaren zenbakiagaz marketea, antolatzaileek material birziklagarria edo barriro erabili daitekena erabiltea, eta igaroten dan lekuetatik lasterketaren ezelango aztarnarik ez izteko konpromiso sendoa.

Trazauan, partaideek euren gaitasun atletikoak eta teknikoak eta erresistentzia erakutsi beharko ditue, mendiko ingurunean, 1.500 metroetara hurbilduko diran altuerakaz eta lurra, zelaia eta harkaitza txandakatuko dituen azalerakaz. Eredu ezin hobea mendizaletasunaren balioetan murgiltzeko, lasterkari bakotxaren muga fisikoak eta burukoak proban jarteko eta gainerako lehiakideakaz eta norberaren buruagaz lehia garbian neurtzeko.

MENDIKO MARTXAK

Bocineros-Deiadar Xtreme ultra trailaren osagarri moduan, bost Deiadar Mendietara igotzeko lehiaketatik kanpoko martxak antolatuko dira, jente guztiak lasterketak jarraitzeko aukerea euki daian.

Martxa horreek, kirol probako lehenengo sailkatuak tontorretatik igaroko diran uneagaz bat etorriko dira, lasterkariak ikusle guztien berotasuna eta animoa sentitzeko aukerea izan deien.

Hori dala eta, martxa horreen artetik hiru gauz egingo dira (Kolitza, Ganekogorta eta Gorbeia), eta hori beste pizgarri bat izango da partaideentzat.

NOTA DE PRENSA

13/09/18

Más de 300 deportistas y 500 voluntarios tomarán parte en las tres modalidades de la ultra trail Bocineros – Deaidar Xtreme

La ultra Trail Bocineros-Deiadar Xtreme ya está aquí. Más de 300 deportistas provenientes de una veintena de provincias de todo el Estado y de Francia participarán durante los días 14, 15 y 16 de septiembre en las tres modalidades (200K, 105K y 45K) que propone la ultra trail Bocineros Xtreme. En una rueda de prensa celebrada hoy en la Sala de la Vidriera de la Casa de Juntas de Gernika en la que han estado presentes la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui; el director técnico de la carrera, Fernando Pérez; y la Teniente Alcalde de Gernika, María Uribe, se han dado a conocer algunas de las cifras que avalan la dimensión de este evento deportivo: 12.500 balizas, 18 avituallamientos y dos Bases de Vida, 500 voluntarios y 6 toneladas de bebida y comida.

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, como máxima representante de la institución parlamentaria, ha transmitido la “satisfacción de poder colaborar con esta preciosa iniciativa”. Una carrera de montaña que, a su entender, aúna “naturaleza con tradición, esfuerzo extremo con mítica leyenda”. “Nuestra ilusión es que con carácter bianual esta carrera se convierta en un clásico del calendario deportivo”, ha manifestado.

En la primera de las modalidades, las y los corredores que tomarán la salida en el Pasealeku de Gernika mañana a las 10:00, vivirán un momento de intensa emoción al cruzar poco después entre el Árbol de Gernika y el Viejo Árbol, cuyo milenario tronco fosilizado se conserva en el jardín de la Casa de Juntas. A partir de ahí, les esperan 200 kilómetros a realizar en un máximo de 56 horas en los que recorrerán buena parte de Bizkaia ascendiendo los 5 Montes Bocineros (y otra veintena de cumbres vizcaínas) y pasando por las otras dos sedes de la Juntas Generales de Bizkaia: Abellaneda y Gerediaga. Unos pugnarán por la victoria en la vertiente más deportiva de la prueba; otros, por completar un desafío personal que va mucho más allá del deporte.

La dureza de una ultra trail como la Bocineros-Deiadar Xtreme, de 200 kilómetros y 22.000 metros de desnivel, hace que la prueba esté reservada a corredores y montañeros de una contrastada resistencia física y mental. Los primeros en cruzar la meta cumplirán cerca de 30 horas de carrera, mientras que los últimos tendrán un tiempo límite de 56 horas para completar el recorrido.

Consciente de esa exigencia, la organización ha previsto otras dos carreras de menor distancia que permitan abrir el abanico de participantes en la ultra trail Bocineros-Deiadar Xtreme y conocer los Montes Bocineros desde esta perspectiva deportiva:

Deiadar Ultra: Es una ultra trail de 105 kilómetros y 10.400 metros de desnivel acumulado con salida y llegada en Gernika que discurre por 19 municipios de las comarcas de Busturialdea, Lea Artibai y Durangaldea, con avituallamientos en núcleos como Bermeo, Busturia, Kortezubi, Ereño o Aulesti, Ascende una decena de montes, entre ellos los Bocineros Sollube y Oiz, y discurre por la Reserva de Urdaibai y 5 sierras y macizos de las mencionadas comarcas.

Deiadar Maratoia: Es una carrera por montaña de 45 kilómetros y 4.400 metros de desnivel acumulado con salida y llegada en Gernika que discurre por 10 municipios de la comarca de Busturialdea, con avituallamientos en núcleos como Bermeo, Busturia o Forua, Ascende cinco montes, entre ellos el Bocinero Sollube y discurre por la Reserva de Urdaibai y 3 sierras y macizos de la mencionada comarca.

RESPECTO AL MEDIO AMBIENTE

Además de promover y dar a conocer nuestra historia y el deporte, la Bocineros-Deiadar Xtreme surge como escaparate para mostrar los valores naturales y paisajísticos de nuestra tierra, poniendo tanto al deportista como a los espectadores en estrecho contacto con el patrimonio natural, histórico y etnográfico de Bizkaia. En esta línea, la carrera promoverá por un lado los senderos balizados por los que pasa, como GR's, PR's, y Camino de Santiago (más del 75% de su recorrido), y por otro la recuperación y mantenimientos de senderos y caminos de montaña, todo ello en estrecha colaboración con las instituciones y organismos implicados.

Al mismo tiempo, uno de los valores más importantes de la carrera es el más absoluto respeto por un entorno a conservar por sus altos valores naturales, paisajísticos y etnográficos. Asimismo, desde la organización de la prueba se promoverá el uso sostenible y responsable de los espacios naturales por los que discurre.

Para garantizar este compromiso, la organización establece en el reglamento de las carreras una serie de medidas como restringir el número de participantes, limitar la generación de residuos en los avituallamientos (cada corredor lleva su propio vaso, entregado por la organización), el marcaje con su dorsal de todos los envoltorios que lleve cada corredor, el uso de material reciclable o reutilizable por parte de la organización y su compromiso firme de no dejar rastro alguno de la carrera allí por donde pasa.

En su trazado, los participantes pondrán a prueba sus dotes atléticas y técnicas y su resistencia en un entorno de montaña, con altitudes que rozan los 1.500 metros y superficies que alternan tierra, prado y roca. Un marco ideal para imbuirse de los valores del montañismo, poner a prueba los límites físicos y mentales de cada corredor y medirse en limpia competición con el resto de participantes y con uno mismo.

MARCHAS DE MONTAÑA

Como complemento a la ultra trail Bocineros-Deiadar Xtreme se organizarán marchas no competitivas de ascensión a los cinco Montes Bocineros para que el público en general pueda seguir la competición.

La llegada de estas marchas a cada una de las cinco cumbres bocineras se hará coincidir con el paso de los primeros clasificados de la prueba deportiva a fin de que los corredores puedan recibir el calor y el ánimo del público.

Ello implicará que tres de las marchas serán en horario nocturno (Kolitza, Ganekogorta y Gorbeia), lo que supone un aliciente añadido para los participantes en ellas.